

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZ UDALA

GIZARTE POLITIKEN, ADINEKOEN ETA HAURREN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko abenduaren 30an hartutako erabakiaren laburpena: Baliabide ekonomiko eskaseko pentsiodunek ohiko etxebizitzan duten energia-gastuari aurre egiteko laguntza ekonomikoak emateko deialdi publikoa, 2020ko bigarren seihilekorako

BDNS (Identif.): 543878

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdns-trans/index>).

Lehena. Onuradunak

Eskabidea egiteko unean betebeharrak hauek betetzen dituzten pertsonak:

1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzea pentsio-osagarri gisa.
2. Eskabidea aurkezten den uneari dagokionez, azken 10 urteetan gutxienez 5 urtez Vitoria-Gasteizen errolatuta egon izana, eta gutxienez urtebetez, modu jarraikian, eskabidea egin aurretik.
3. Ohiko etxebizitzarako elektrizitatearen, gasaren edo beste erregai batzuen fakturak ordaintzea, zuzenean edo zeharka (etxejabeen erkidegoari, errentatzaileari...). Laugarren oinarriko 2. atalean zehazten da nola egiaztatu betebeharrak hori.
4. Kontsumitzaile kalteberentzako bonu soziala eskatu izana; urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuak eta urriaren 6ko ETU/943/2017 Aginduak arautzen dute hori.
5. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. artikuluan onuradun izateko aipatzen diren debeku-egoeretakoa batean ez egotea.

Betebeharrak egiaztatzeari dagozkionetarako, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5. artikuluan definitutako bizikidetzaren unitatearen kontzeptua hartuko da kontuan.

Bigarrena. Helburua

Baliabide ekonomiko eskaseko pentsiodunek ohiko etxebizitzan duten energia-gastua finantzatzeko laguntza ekonomikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzea, hau da, bigarren oinarrian zehazten diren pertsonen elektrizitatearen, gasaren edo beste erregai batzuen hornikuntzagatik egin beharreko gastuari dagokiona.

Hirugarrena. Oinarriak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko abenduaren 30an onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

30.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Bi hilabete, laburpen hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 30an

Gizarte Politiken Saileko Administrazio Zerbitzuko burua

ROSA ANA URTARAN URTARAN